

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO DEIALDIA (2025)

Behin betiko Ebazpena

UPV/EHUko Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordetzak 2025eko euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzen deialdia argitaratu zuen 2025eko urriaren 17an.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ondoren, emandako laguntzen behin-behineko ebazpena argitaratu zuen 2025eko azaroaren 12an, eta 6 egun balioduneko epea eman zuen alegazioak aurkezteko.

Hori guztia kontuan hartuta, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordetzak honakoa

EBATZI DU

Euskararen erabilera sustatzeko 2025eko deialdia ebaztea, non eranskinean zehazten dira emandako dirulaguntzak.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta bere aurka, nahi izanez gero, interesdunak berraztertzeke errekurtsioa aurkez diezaioke Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordeari hilabeteko epean, erabakia hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango du administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegian, bi hilabeteko epean, aipatutako egunetik kontatzen hasita.

Leioan, 2025eko azaroaren 25ean.

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza